



PRENTSARAKO OHARRA

## **‘EMAKUMEAK KIROLEAN’ JARDUNALDIA BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN**

- **Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen (EAE) Bizkaiko Batzordeak, emakumeek gizartean beteten daben lekuaren ganean gogoetea egiteko eta eztabaidatzeko konbitea egiten daben jardunaldi interesgarriak eskainiko ditue hilebete honetan**

Gaur hasi da ‘Emakumeak Bizkaian’ jardunaldien bigarren edizinoa. Lau topaketek osatzen dituen jardunaldietan, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Bizkaiko Batzordeak, proiektuak emon gura deutesie emakumeek hainbat arlotan, kirol edo museo munduko kudeaketan, ikerketa zientifikoan, barrikuntza teknologikoan edo hezkuntzan, daukien presentziari.

Aurtongo jardunaldien izenburu orokorra “Emakumeak Bizkaian. Nolakoak gara, nola ikusten gaituzte” da, eta lehenengoa, gaurkoa, emakumeek kirolean beteten daben lekua jorratzera dago zuzenduta, edozein diziplinatan arituz edo talde profesionalen edo amateurren kudeaketan.

Jardunaldien edegitean, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak adierazo dau kirola dala “emakumeen rola aldaketa gehien ikusi dan arloetako bat, betidanik gizonenak zirala uste ziran kirolak egiten hasi dira emakumeak, modu profesionalean edo ludikoan”. Emakumeen ahalduntzea “gelditu ezina” dan eta “bardintasunaren bidean aurrerapausu handiak emon diran” arren, Otadui “ez konformetako” eskatu dau, “politikan, enpresan edo kirolean lider diran emakumeak egon badagozan arren, oraindino egiteko ibilbide luzea daukagulako”.

Otadui gogoratuazo dauenez, Bizkaiko Batzarrak emakumeek organu legegileetan daukien presentziaren “zifrei buelta emoten ahalegintzen ari dira”. Legealdi honetan, “historian lehenengoz, Bizkaiko Batzarretan gizon baino emakume gehiago dagoz”, baina gero azpimarratu dau “oraindino generoen artean desbardintasuna dala nagusi, eta gizonezkoak dirala erantzukizun handiagoko postuetara heltzen diranak”. Holan, emakumeek, “mundu osoko legebiltzarretako eta batzarretako kideen arteko %22” baino ez dira.

Kirola da emakumeen rola aldaketa gehien ikusi dan arloetako bat, emakumeak betidanik gizonenak zirala uste ziran kirolak egiten hasi dira, modu profesionalean edo ludikoan. Gaur egun, emakumeen lehiaketak komunikabideetan oihartzuna aurkitzen hasi dira, eta kirolen bat egiten daben



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

emakumeen kopurua eta kirol ekitaldiak ikustea atsegin dabenena gero eta handiagoa da.

Beste alde batetik, astiro bada be, taldeen eta kirolagaz erlazionautako erakunde publikoen kudeaketa organuetan erantzukizuneko karguetan daukien presentzia be gero eta handiagoa da. Horren adibide dira 'Emakumeak Bizkaian' zikloaren lehenengo jardunaldi honetako konbidauak: Ana de la Parte, Espainiako emakumeen errugbiaren aitzindarietako bat. Espainiako selekzinoagaz jokatu eban; María Ángeles Galíndez, abogadua eta, 1894an sortu zanetik, Club Deportivo de Bilbao taldeko presidente izan dan lehenengo emakumea; eta María Tato, Bilboko Athletic Club taldeko idazkariordea.

Jente guztiarentzat zabalik egongo diran saioak zezeileko martitzenetan egingo dira, 18:30etik 20:00etara, Emakumearen Nazinoarteko Egunaren aurrekari moduan, Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko egoitzaren Ekitaldi Aretoan (Hurtado de Amezaga, 6). Aurrerago egingo diran topaketetan, digitalizazioaren ondorioz sortutako erronka handien aurrean, sare sozialetan edo kulturaren kudeaketan emakumeek daukien protagonismoa eztabaidatuko da. Hogei hizlari inguruk, gehienak emakumeak, hartuko dabe parte mahai-inguruetan, horreen artean Marta Macho zientzialaria, Bardintasunaren Emakunde sariduna edo Miren Arzallus historialaria, Pariseko Moda Museoaren zuzendaria. Jardunaldiak igaz egin ziran lehenengoz, eta arrakasta handia euki eben.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **JORNADA ‘LAS MUJERES EN EL DEPORTE’ EN JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA**

- **Las Juntas Generales de Bizkaia y la Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País (RSBAP) van a ofrecer este mes unas interesantes jornadas que invitan a reflexionar y debatir sobre el papel de las mujeres en la sociedad.**

(Bilbao, a 4 de febrero de 2020). Hoy, ha arrancado la segunda edición de las jornadas ‘Las mujeres en Bizkaia’, una serie de cuatro encuentros con los que las Juntas Generales de Bizkaia y la Comisión de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País dan proyección a la presencia femenina en áreas tan dispares como la gestión deportiva o museística, la investigación científica, la innovación tecnológica o la educación.

Las jornadas de este año se celebran bajo el título genérico: Las Mujeres en Bizkaia: ‘Cómo somos, cómo nos ven’ y la primera, la de hoy, ha estado dedicada a abordar el papel de las mujeres en el deporte, tanto en la práctica de cualquier disciplina como en la gestión de clubes, tanto profesionales como amateurs.

En la apertura de las jornadas la presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, ha señalado que es en el deporte donde “más se ha visibilizado el cambio de rol femenino, con una paulatina incorporación de la mujer a actividades, tanto profesionales como lúdicas, tradicionalmente consideradas masculinas”. Pese a que el empoderamiento femenino es “imparable”, y se han logrado “grandes avances en la igualdad”, Otadui ha pedido “no ser conformistas, porque aunque haya mujeres lideresas tanto en la política, como en el mundo empresarial o deportivo, aun nos queda un largo camino por recorrer”.

Otadui ha recordado que el Parlamento vizcaíno “está intentando dar la vuelta a las cifras” sobre la presencia femenina en los órganos legislativos. En esta Legislatura, “por primera vez en la historia es mayor la representación femenina a la masculina en las Juntas de Bizkaia” ha dicho, para, a continuación, poner el acento en que “todavía reina la desigualdad entre géneros, y son los hombres los que acceden a los puestos de más responsabilidad”. De hecho, las mujeres solo representan “un 22% de las parlamentarias en el mundo”.

El deporte es una de las áreas en que más se ha visibilizado el cambio de rol femenino y paulatina incorporación de la mujer a actividades, tanto profesionales como lúdicas, tradicionalmente consideradas masculinas. Hoy el



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

desarrollo de las ligas femeninas empieza a encontrar eco en los medios de comunicación y crece tanto el número de mujeres que práctica algún deporte como el de las que se declaran seguidoras de distintos eventos deportivos.

Por otra parte, aunque a menor ritmo, también incrementa su presencia en cargos de responsabilidad en los órganos de gestión de clubes y entes públicos ligados al deporte. Prueba de ello han sido las invitadas de esta primera jornada del ciclo 'Las mujeres en Bizkaia': Ana de la Parte, una de las pioneras del rugby femenino en España; María Ángeles Galíndez, abogada y primera mujer en ocupar la presidencia del Club Deportivo de Bilbao desde su creación en 1894; y María Tato, vicesecretaria del Athletic Club de Bilbao.

Las sesiones, abiertas a todo el público, se celebrarán los martes de febrero, de 18:30 a 20:00 horas, como antesala a la celebración del Día Internacional de la Mujer, en el salón de actos de las Juntas Generales de Bizkaia (Hurtado de Amézaga, 6). En posteriores encuentros se debatirá el protagonismo de las mujeres frente a los grandes retos derivados de la digitalización, en las redes sociales o en la gestión cultural. Cerca de una veintena de ponentes, en su gran mayoría mujeres como la científica Marta Macho, premio Emakunde a la Igualdad, o la historiadora Miren Arzallus, directora del Museo de la Moda de París, participarán en estas jornadas, que se celebraron con gran éxito de público por primera vez el año pasado.